

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIOA KANALA

Gure proiektua gure bezeroengana irits dadin, eskaerak online egingo ditugu "Etxedroning" izeneko aplikazio baten bidez. Eskaera egiteko, bezeroek aplikazioa instalatuta eduki behar dute. Aplikazio horren bitartez, eskaera egin ahal izango dute haien datuekin saioa hasi bezain pronto. Bertan, produktua eraman behar den lekuaren kokapena jarri behar da, drona gidatzen duen pertsonak nora eraman behar duen jakin dezan. Eskaria egin aurretik, aplikazioan eskatu nahi duten produktu ugari handia izango dute ikusgai.

Hortaz, janaria erosi nahi ez gero janariaren atalera sartu beharko dira. Bertan, janaria zein jatetxetatik jaso nahi dutena aukeratu beharko dute, eta behin aukeratuta, jatetxean eskuragarri dagoen menua ikusi ahal izango dute.

Prozesu berdin gauzatu beharko dute beste motatako produktuak eskatu nahi baldin badituzte. Esterako; arropa, bitxikeriak, perfumeak, produktu teknologikoak, etab. Beraz, denda bat hautatu beharko dute eta bertan dagoen gauzen artean, nahi duten guztia aukeratu ahal izango dute. (Komunikazio-kanala, hau da, nola kontaktatuko dugun bezeroarekin.)

Behin eskaera eginda, pertsona espezializatu batek zuzendutako dronea bezeroak aukeratutako jatetxera edo dendara bidaliko du. Jatetxeak edo denda gure aplikaziotik abisua jasoko du eskaera prestatzen joan daitezen, eta, horrela, drona iritsi eta berehala eramango du bezeroak adierazitako lekura.

Gero, bezeroak leihoa ireki edo terrazara irten beharko du, eta han drona gelditu egingo da bezeroak eskatutakoa hartu eta dirua dronea daraman kutxatxo batean sar dezan. Bestela, nahi badu ordainketa telefono bidez ere egin daiteke aplikaziotik, eta hori bezeroak aukeratu beharko du eskaera egin aurretik. Behin entrega eginda, drona bulegora itzuliko da dirua eramateko. (Banaketa-kanala eta salmenta-kanalak)

Ondorioz, gure helburua lortuko dugu. Bezeroak eskatutako produktua era erraz, azkar eta oso seguru baten emango diogu, COVID-19 -ak inolako eraginik ez izanez.

Gaienera, edozein arazo izan ondoren bai komunikazioan, bai banaketan edota salmentan telefono bat eta helbide elektronikoa bat eskuragarri izango dugu aplikazioan bertan topatu ahal dutena.